

Ilargi Perez Ormazabal

F maila • 1 saria

Ilargi Perez Ormazabal naiz, eta 2012ko maiatzaren 6an jaio nintzen. Harrezkero Beasainen bizi naiz. Murumendi eskolara joaten naiz, 4. mailara. Asko gustatzen zait kirola egitea, bereziki saskibaloia eta idaztea ere. Izugarri poztu naiz saria jasotzean. Espero dut nire ipuina gustokoa izango duzuela.



DENOK EZBERDINAK GARA

Munduan pertsona askok dute gaixotasunen bat, batzuek gorrina, besteek gorreria, gutxi batzuek minbizia. Baina ume honek dismetria zuen, hanka bat oso luzea eta bestea oso motza. Ume honek Jon zuen izena eta oso pozik zegoen bere buruarekin dismetria izan arren. Hanka luzea, hanka motza, berdin zitzaion berari. Eskolan batzuk burla egiten zioten. Orduan pentsakor gelditzen zen: zergatik egingo didate burla? Kanpotik besterik ez naute ikusten, barrutik ia inork ez nau ezagutzen.

Jonek bazuen lagun bat, Oihana izenekoa eta berak bezala, zerbait berezia bazuen. Txikia zenean istripu bat eduki zuen eta hanka galdu zuen. Jon astero joaten zen errehabilitaziora eta Oihana ere. Hor hasi zen harremana sortzen oso lagun minak egin ziren arte.

Iritsi zen uda. Agur esan zien eskolari eta eskolako lagunei. Baina Jon eta Oihana udarako planak egiten hasi ziren.

Egun batean biak basora joatea pentsatu zuten eta bere gurasoei galdetzea erabaki zuten:

-Aita, ama bihar basora joan al gaitezke Oihana eta biok? -galdetu zien Jonek.

Ama eta aita pentsakor gelditu ziren. Hasieran ezezkoa esan zioten baina eztabaidatu ondoren erabaki bat hartu zuten. Amak esan zion orduan:

- Ongi da, baina kontu handiz ibili eta zerbait gertatzen bazaizue deitu, ados? Mobila eramatea utziko dizut eta entzun duzu, deitu laguntza behar baduzue.

-Baieeetz!!! -erantzun zuen asperduraz, beti kontu berdinak entzuten bait zituen.

Ohianak berdin egin zuen bere etxekoekin. Basora joateko baimena eskatu eta azkenean honi ere joaten utzi zioten. Merezi zuen beste batzuk egiten zituzten planak egitea baita.

Berriro elkartu zirenean adostu zuten hurrengo egunean joango zirela. Motxila prestatu ondoren afaldu eta lo egitera joan ziren.

PROSA

Hurrengo egunean motxilak hartu eta mendi aldera joateko elkartu ziren. Etxetik atera zirenean poz pozik zeuden biak. Jonek esan zuen

-Azkenean zer bait egin dezakegu bakarrik! Lehen komunera ere laguntzen ziguten, baietz Oihana? Bazen ordua biok bakarrik zer bait egiteko!

Kontu kontari joan ziren bidetik: zer gertatzen zitzaien eskolan, Joni burla egin ziotela, Oihana baztertu egin zutela ... Ondo etorri zitzaien hori konpartitzea.

Eta konturatu baino lehen basora sartzen hasi ziren. Libre sentitu ziren baina libre bakarrik ez, lasai ere, lasaitasuna sentitzen zuten han. Belardian etzan ziren eta zoriontsu sentitu ziren. Oso zoriontsu!

-Ze pena hemen ezin garela gaua pasatzen geratu! - esan zuen Oihanak.

Han etzanda denbora luze batez egon ziren eta gero jolastu egin zuten. Baina berandutzen hasi zenean motxilak hartu eta buelta hartu zuten. Bueltan ere hitz egiten joan ziren baina oraingoan plan berriak pentsatzen joan ziren, ahaztuta zuten jadanik eskolan gertatutakoa.

Basora joan ziren eguna ondo joan zenez, gurasoek beste plan gehiago egiten utzi zieten eta horrela pasa zuten uda zoragarri hura.

Iritsi zen eskolara bueltatzeko ordua. Jon pozik bueltatu zen eta Oihana baita ere. Lehenengo egunean, udan egindakoaz hitz egin zuten eta hauek ere kontatu zieten besteei basoan nola ibili ziren, ... Gelakideek harrituta entzun zuten hori uste zutelako ezin zituztela horrelako gauzak egin eta hortxe sortu zen gelakideekin planak egiteko gogo. Batzuk barkamena eskatu zioten burla egin ziotelako eta ordutik gauzak erabat aldatu ziren Jon eta Oihanarentzat.

Urteak ez ziren errazak izan baina gure bi lagunek gogor eutsi zuten eta ez ziren atzean geratzen. Bere desgaitasunari egokitutako kirola egiten hasi ziren eta handik urte batzuetara Jon pilotari aparta izan zen eta horregatik deitzen zioten Altuna, eta Oihana ere korrikalari aparta bihurtu zen eta horregatik deitzen zioten Loyola. Biek zuten kiroletan bizi bat.